

Bizkaiko ahaldun nagusiak ez du egia esan

Guggenheim Urdaibai STOP plataformak salatzen du ez direla zuzenak Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahaldun nagusiak Radio Euskadiko Boulevard saioan uztailaren 17an Guggenheim Urdaibai proiektua dela-eta esandako hainbat kontu.

Harira etorri ez arren, behin eta berriro esan du “arduragabekeria” dela proiektua bertan behera uzteko eskatzea; proiektu horren aurka gaudenok ez omen dugu nahi Gernikako “kutsatutako lur horiek eta akuiferoa berreskuratzea”, ezta “Astilleroa bezalako industria astun bat baztertzea” ere. Bere ustez, egitasmoaren kontrakoek “ezetz esaten diete egiten ari garen gauza horiei guztiei.”

Etxanobe andreak informazioa manipulatzeko maila goreneko ariketa bat egin du, eta hori ez dago onartzerik. Berak ondotxo dakien moduan, Guggenheim Urdaibai Stop plataforma Gernikan lurzoru eta akuifero kutsatuak berreskuratzearen alde dago eta egongo da, eta horixe adierazi dugu beti, bai kalean, bai komunikabideetan. Kontrakoa adieraztea ez da zuzena; are gehiago, gezurra esatea da.

Era berean, Plataformak alde edo molde eskatu die dagokien administrazioei (fiskaltza eta MITECO) hartu beharreko neurri guztiak hartzeko “Astilleros de Murueta”-ri exijitzeko biosfera-erreserbaren bihotzean ezarrita duen ekipamendu guztia erretiratzeko eta lurrak lehengoratuta uzteko; izan ere, enpresa pribatu hori, 1943an eman zen eta 2018an iraungi zen kontsezioa bati esker dago eremu hori okupatzen; gaur egun ere martxan jarraitzen du, nahiz eta bere jardura ez den inondik ere bateragarria biosfera-erreserba baten bihotzean kokatuta egotearekin.

Zer egin du zure alderdiak egoera honen aurrean? Non zeuden zure alderdiko agintariak, urte luzez dragatzeak eta handitzeak zigorrik gabe egiten zirenean? Orain, guri lezioak ematera zatozte, ardura hori zuona izan denean urte guzti hauetan eta nahita, beste alde batera begiratzea erabaki duzuenen. Orain, enpresa pribatu batek eragindako kutsadura diru publikoarekin garbitu nahi duzue eta hori lagunentzako mesede txikia balitz, hasiera baten domeinu publikokoak “izan ziren” lurrak eta gaur egun, auskalo nola eta zergatik, “pribatuak” direnak, erosi nahi dituzue, hau ere guztion diruarekin. Hori da zuok duzuen babesteko modua, baina ez natura, noski. Herritarren interesak ez diren beste interes batzuk babesten dituzue.

Plataformak beste balio batzuk ditu, eta, herritarrek ematen diguten babesarekin, ingurunea, gure etxea, babestu nahian jarraituko dugu. Horretarako, besteak beste, helegitea jarri dugu Audientzia Nazionalean, berriro ezar daitezkeen kostaldeak babesteko zortasunaren legeak, eta alegazioak

aurkeztuko dizkiegu proiektu hau bideragarri bihurtzeko helburu bakarrarekin aldatzen ari zareten hirigintza-plan guztiei.

Esan beharrik ez dago, eskualdearen garapen sozioekonomikoaren alde gaude, baina ez natura suntsitzearen pentzura, ezta Busturialdearen benetako beharrei erantzuteko inolako oinarririk ez duen museo bat irenstearen/onartzearen pentzura ere.

Plataforma honetatik eskatzen dizugu gaiari ihes ez egitea, zure erantzukizuna zure gain hartzeko eta herritarrek argudio faltsuekin nahasten ez jarraitzeko, are gutxiago irratik publiko batean. Radio Euskadira itzuli eta esandakoak zuzentzea behar zenituzke. Benetan sinestuko bazenute Guggenheim Urdaibai proiektuaren ustezko ekarpen infinituan, benetan balitz hain egitasmo onuragarria, ez litzateke beharrezkoa izango hainbeste gezur esatea eta hainbeste aitzakia jartzea, berez-berez salduko litzateke, halako ahalegin komunikatiborik egin barik.

Elixabete Etxanobe diputatu nagusiari eskatzen diogu publikoki argitu dezala noiz eta non adierazi dituen Guggenheim Urdaibai Stop plataformak berak egozten dizkion baieztapenak: naturaren leheneratzeari ezetz esatea (kontu hori bere eurodiputatuarekin argitu beharko luke), Astilleroa biosfera erreserbatik ateratzeari ezetz esatea (hori EAJk egin du 40 urtez, eta gaur egun ere horretan dihardu) eta plan sozioekonomikoei uko egitea (legeak dio herritarrek prozesu horietan parte hartu behar dutela proiektuen hasieratik, eta ez horiek erabakita daudenean, tramite bat betetzeko helburu bakarrarekin).

Era berean, Radio Euskadiri eskatzen diogu inpartzialtasun-printzipioa betetzeko eta plataforma honi eta GGU proiektuaren aurka dauden gainerako kolektiboei hitza emateko, oinarririk gabeko salaketen aurrean aukera-berdintasunean defendatu ahal izateko.

Amaitzeko, eta argi geratu dadin: BAI ingurunea leheneratzeari eta deskontaminatzeari, EZ Urdaibak Biosfera Erreserban bi Guggenheim museo eraikitzeari.